

Pijama marradunaz jantzitako mutikoa



Pijama marradunaz jantzitako mutikoa

Jatorrizko izenburua: *The boy in the striped pyjamas*

Egilea: John Boyne

Itzultzailea: Mirentxu Larrañaga Sueskun

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdania

MIKEL GARMENDIA

Zail da, zail denez, halako arrakasta izan duen eleberraren gainean laudorioez bestelako kritikarik egitea. *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* eleberrak badu, ordea, nire ustez, zer kritikatu.

Eleberraren gai nagusia holokaustoa da eta, egia esan, ez dut ulertzen zer dela eta dioten editoreek eleberrari hau argumentua zein den jakin gabe irakurri behar dela. Izan ere, eleberraren hasieratik beretik iradokitzen zaigu gero etorriko zaiguna. Gertakarien kontaketa bederatzi urteko mutiko baten ikuspegitik eginga da, Bruno izeneko mutikoaren ikuspegitik. Planteamendua interesgarria da berez, baina esango nuke inozoegi, ezjakinegi azaltzen zaigula protagonista eta horrek kendu egiten diela sinesgarritasuna gertakizunei.

Autsbiz-eko –hala idatzia baitator eleberrian– kontzentrazio-esparruaren buru izendatzen dute Brunoren aita. Hala, Berlinen lasai eta pozik bizitzetik kontzentrazio-esparruko hesiaren ondoan bizitzera pasatuko da. Guztiz asperturik eta bere esploratzaile-grinak bultzatuta, laguntxo bat egitea lortzen du isil-gordeka: Shmuel, pijama marradunaz jantzitako mutikoa. Elkarren beharrean daude mutiko biak, hesiak banatzen ditu, eta elkarrekin egon behar horrek hesiaren alde batera eramango ditu biak ala biak, eta horrexek baldintzatuko du eleberraren amaiera.

Esan bezala, nekez onartuko du, nik uste, irakurleak Bruno bere inguruan gertatzen ari denaz ez konturatzea; sinesgarritasuna falta zaio alde horretatik. Hala ere, ongi lortua dago, behin inozotasun hori onaturik, tentsioak gero eta gehiagora egitea eta horrexek eusten dio arretari eta horrexek bultzarazten du irakurlea etenik egin gabe irakurtzen jarraitzera amaierara arte. Amaiera ere oso lortua da. Bruno eta bere arrebaren arteko harremana ere oso egoki karakterizatua da eta horrek konpentsatzen du beharbada eleberria sinesgarritasunari dagokionez. Sinesgarritasunaren kontu hau, jakina, oso da eztabaidagarria, ez baita berdina izango heldu baten irakurketa eta Bruno edo Shmuelen adin bereko batena. Zalantzarik gabe, balio handiagoa izango du adin horretako irakurleen pertzepzioak. Zeren eleberrari hau, Roberto Benigniren *Ederra da bizitza* lan bikaina ez bezala, bederatzi urteko mutiko baten ikuspegitik baitago kontatua, nahiz eta hirugarren pertsonan idatzia izan.

Itzulpenaz denaz bezainbatean, ondo bete du helburua Mirentxu Larrañaga itzultzaileak. Helburua zein den? Hona Petra Elser-ek egunotan emandako artikulu interesgarrian argi eta garbi adierazia: *Xede-hizkuntzako irakurleak pertsonaia sinestu baldin badu, harekin sufritu eta gozatu badu, kosta egin bazaio gauean argia itzaltzea, itzultzaileak bere helburua bete duen seinale.*